**ERREPORTAJEA** NOLAKOA ZEN ELGOIBAR 1803AN • **GEHIGARRIA** JAIETAKO EGITARAUA EGUNEZ EGUN, 22tik 31ra
**INKESTA** JAIETAKO GOSEAK BEHERA EGIN DUELA BEGITANTZEN AL ZAIZU?

# Barren

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2003ko abuztuaren 22a / XI. urtea / 454. zkia



## Gora San Bartolome!

"JAI LANGILLEA ETA LITXARREROA EZ DIRA BEHIN ERE ABERASTEN" (esaera zaharra)



EUZKO
GAZTEDI

IZAN ZIRELAKO GARA
GARELAKO IZANGO DIRA
JAIETAN ERE EUSKALDUN

Elgoibarko EGI

# 110,flustondo,s.L.

EDARI BANATZAILEAK

## Elustondok aholkatuta



*Sadatanlo ‘Zavi,d 714o7eno eta nala77oako /14a7qu& de Valca7los a7do 9o77jak*

*Jdiaquez, ‘Zatli,(){ /RoliCho eta Sejowo 747Aco wzteko a7a(o 6eltzak*



*)14VC cava*

*Sadazano ‘Zavid ourto eta nalanoako /1447quis de Valca7los* a7do txtetiak

Zavid o7eno eta /14a7qtdg de Valcattos 1.wantzak



- Denominazio gabeko Errioxako ardoak
- Errioxako ardoak
- Kriantzak, erreserbak,...
- Cavak, "Jumes Serra", "Faustino", "Martinez", "Juve Camps"...
- Oruj oak / Afilador orujoa
- Getariako Aizpurua txakolin freskoa
- Kontserbak

**San Roke, 32 34 (Instituto parean)** **Tet. 943 74 09 92**

# GREVIOEN GIDA

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako Iana
Ermuaranbide, 16
Tr **943 74 31 16**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
¹T **943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
zr **943 74 34 90**

**LURRA**
Santa Klara, 28 Behea
Tr **656 78 78 59**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
11. **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
u **943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
-17 **943 74 03 96**

## ERREFORMAK eta PROIEKTUAK

**ETXEKIT**
Antonio Arrillaga, z/g
17 **943 74 43 47**

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIGA`ETA KLIMATIZAZIOA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
u **943 74 17 61**
u **689 04 92 06**

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabloia
`r **943 74 28 80**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
u **943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
**943 75 50 62**
lr **607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
-17 **943 74 05 30**

**ZUBIZARRETA**
Ubitarte, 5
u **943 74 07 89**
u **608 14 30 40**

## PINTURAK7-

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
Tr **943 74 15 52**
zr **606 43 11 19-20**

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
11 **943 74 04 40**
17 **607 74 04 40**

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
11- **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
`zr **943 74 12 38**

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
**943 74 09 02**
u **659 93 49 64**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
"zr **943 74 13 76**

## 1GELTSERUTIA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
Tr **943 74 34 18**

**ASKETA**
Osio, 7 DEBA
'rr **629 34 43 89**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
13 **943 74 29 87**
u **679 19 77 47**

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
1* **943 74 30 94**

## Gora San Bartolome

"...ta berriz izango gara zoriontsu edozein herriko jaixetan..." dio Itoitzen abesti ezagun batek. Hauek ez dira edozein jai baina, geure San Bartolomiak baizik, eta jadanik hemen dauzkagu ate joka, urteko egunik zoro, alai eta desmadratuenak, ezta?

"San Bartolomiak ezkero eulixak burua behera eta ipurdixa gora" dio esaera zaharrak. Egunak laburtu eta eguzkiaren indarra apaltzen dela esan nahi du. Elgoibartar espezieko izakiek eulien oso bestelako jarrera erakutsi ohi dute garai honetan. Azter dezagun: Alkondara koloretsuak jantzi eta txanpaina elkarri burutik behera botaz hasten ditu jaiak. Zapi gorria lepoan jantzi eta urtean zehar egiten ez dituenak (eta gehiago) egiteko lizentzia eskuratzen du. Gainera, gauzak (txupinazoaz ari gara) birritan edo hirutan hastea gustatzen zaio, hasierako zirrara hori adiktiboa izanen baita. Dantza eta algararako dohainak ere baditu elgoibartarrak egun hauetan, eta abileziarik ez bada gogoarekin nahikoa da. Zezenaren aurrean ibiltzeko, berriz, gogoarekin ez da nahikoa, hanka arinak, izkin egiteko trebezia eta noski... bi "begi" zorrotz komenigarriak dira. Ohitura bitxia zezenak kalean askatzearen hau! Eta are bitxiagoa Txiki Eguneko liturgia. Egun honetan elgoibartarrek dituzten ohitura eta jokabideari zentzuzko azalpenik bilatzea zaila da. Zertarako bilatu zentzua? Gorputzak eskatzen duenari kasu egin eta gozatu! Horixe da BARRENeko lantaldearen gaurko kontseilua. Bakoitzak bere zapataren neurrira egindako jaia aurki dezala desio dugu. Gazte, zahar, neska, mutil, lodi, luze edo mehe, gora San Bartolome!.




BARRENeko lantaldea



## Jaietaz gozatzera!

Uztailaren 22an izan dezakedan ikuspegitik idazten ari natzaizue jaietako ale berezirako eskatu didaten gutun hau. Gaur, kalean beste gai batzuk ditugu hizpide Frantziako Tourrean Euskaltelek eta Armstrong-ek egiten dihardutena esaterako, baina ezinbestekoa deritzot jaiei buruz lau hitz esateari.

Gaitza da San Bartolomeei buruz mintzatzean topikoetan erori gabe ezer idaztea. Nik neuk ere arrisku hori dut topikozale ez naizen arren. Baina ezin utzi dezaket aukera hau bazterrean gauza bi eskatu gabe: izan gaitezen zentzudun azken urteotan izan garen bezala jaiak gozatzerako orduan. San Bartolomeak jendearen gozamen bihurtu dira eta horrek ezinbestez izan du islada herritik kanpoko jendearengan, asko eta asko amorratuta etortzen baitira gure kaleetara.

Beste eskaria zoriaren eskutan utzi beharko dugu. Gogoratzen al zarete iaz izan genuen eguraldiaz? Aspaldikoak ahaztu egiten diren arren 1983ko jaiak ezkeroztik nik neuk ez dut halako euriterik jasan. Baina datozen okerrak datozela merezi du egun hauetan izango dugun giroari probetxu ateratzea, bestelako buruhausteetarako hor baitititugu urtean ostantzeko egun guztiak.

Gehienok irailaren bateko txarangarekin joan behar izango duzue ziur asko zuon lan-lekuetara. Bati baino gehiagori entzun diot jadanik hilaren leheneko instrumentu hotsak egingo dion efektuaz madarikazioak botatzen. Besteon miseriak balio bazaizkizue jakin ezazue nik Txiki Egunean ekiten diodala lanari. Eutsi goiari eta denok kalera!

**Gotzon Arrieta**

Kexak .............................................. 7

ErrePOrtAjea ............................................ 12

kale inkeSTa ...................................... 14

jaietAko eGitarauA ....................

## Okerrak zuzentzen

BARRENen azken alean (453 zenbakia) oker bat egin genuen Urruzunoren Begi Ezkutua atalean. Bertan, ez zegokion testua sartu genuen Iñigo Otañoren sinadurapean. Aste honetako testua da Iñigok idatzirikoa. Barkamenak eskatu nahi dizkiogu Ifflgori eta baita irakurleoi ere.

## Oharra

Abuztuaren 31n, Jubilatuen Eguneko bazkaria Merkatu Plazan izan beharrean Kiroldegian izango da eguerdiko 14:00etan (bamiko orrietako egitarauan oker dago jarrita).

# Urruzunoren begi ezkutua

## Barneko paisaiak II



Lehengoan, txikitatik bisitatu ez nuen leku batean egon nintzen. Paisaia ezaguna egin zitzaidan, txikitan ezagutu nuen berbera baitzen: han zeuden etxe zuri bakartiak, zelai luze bezain lehorrak, errekastoak erdibitzen zuen zuhaizti berdea... iragan urte hauetan inortxok ere ukitu gabe. Hala ere, erabat desberdina iruditu zitzaidan, arrotz eta urruna, distantzia handi eta gaindiezin batek lehenago izan zen paisaia hartatik bananduko bailuen.

Izan ere, neu naiz urte guzti hauetan aldatu dena, eta ondorioz, ikusten dudan paisaia berbera izan arren, ez dut jadanik begi berdinez ikusten. Eta ez nago ziur orain ikusten dudan paisaia ere, etorkizunean nola ikusiko dudan.

Memorian galdurik, hor nonbait aurkitzen dira bizitzan zehar ikusitako milaka paisaia, lanbro malenkoniatsu batez estalirik, distortsionaturik, norberaren barneko paisaia osatuz. Errealitate bat eta bakarrari desafio eginez.

**Iñigo Otaño**

## GAZTEON GUNEA ERRESPETATU

Herriko gazte asko ahaztuta izango da honezkero, Udalak Madalako parkean azkenekoz antolaturiko gazteen eguneko kontzerturen batetaz, edota beste edozein ekitalditaz. Hala da bai!, badira zoritxarrez aspaldion ohitura bihurtuak, Udalak Madalako parkean deus antolatzen ez dituen garaiak. Hau ikusirik eta Udalak urteetan gaiari buruz esanikoari muzin eginaz, Gazte Asanbladak, Madalako gunea herriko gune bezela errebindikatu nahi du urte bat gehiagoz. Hala, deia luzatzen die gazte sentitzen diren elgoibartar guztiei, sinbolikoki gazteen egunean antolatuko den kontra-kontzertura etor daitezen. Abuztuaren 29an, gaueko 23:00etan izango da kontrakontzertua Gaztetxeak antolatuta txosnetan. Talde sorpresa batek eta Bad Sound Sistem Djek eskainiko dute kontzertua. Aurrerantzean aldaketaren bat izan eta Udaletxe berriak jarrera irekiagoa izango duen esperoan agurtzen gara. Laster arte!

Elgoibarko Gazte Asanblada

BaRRen ASTEKARIA

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comtarren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea GENIGARRIEN ARDURADUNA Uxue Alberdi PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arneta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Oarateren liburutik INPRIMATEGIA Geitu Koop. E. TIRADA 4.200 ale LEGE GORDAILUA SS-1 .038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO IZARRA

*Elgoibarko L'dalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa

Ji-DANOBAT

5>GOITI GRUPO DANOBAT

InARTA

## KEXAK

• Herritar batek esan digunez, Urruzunoko Babes Ofizialeko etxeak egiten ari diren tokian, eskabadorarekin zuhaitz bat lurretik atera dute etxebizitzaren puntu altuenean jartzeko: "Eraikuntzaren munduan ohitura da etxebizitzaren puntu altuenean erramua jartzea, baina Urruzunoko Babes Ofizialeko etxeetan, atzeko parketik zuhaitz bat oso-osorik atera dute esbadadorarekin eta hori jarri dute. Ez dago eskubiderik!"



• Urasandiko auzokide batek esan digunez, Errezabal baserri ondoko iturriak ez dauka urik: "Ingurune honetan jende ugari ibiltzen da pasiatzen, ume ugari ibiltzen da bertan jolasean, eta iturriak hilabete inguru darama urik gabe. Ingurunean beste iturririk ez dagoela kontuan izanik, behar̃ezko izango litzateke lehenbailehen konpontzea".



## Va1110111

• Herritar batek Udala txalotu nahi du, San Frantzisko iturri aurreko baldosak konpondu dituztelako: "Denbora luzez egon dira baldosa horiek puskatuta, eta bazen konpontzeko garaia. Arriskutsua zen, eta jende askok sartzen zuen hanka zuloan. Ea gehiago irauten duten, eta puskatzen diren hurrengoan, lehenago konpontzen dituzten".

## *ondo pasau jaixetani*



# erretratu zahorra

2003-VIII-22



Argazki hau herritar batek laga digu. 1954. urteko San Bartolome Txiki egunean ateratakoa da. Garai hartan, Txiki Egunean mahatsa jateko ohitura zegoen, eta argazkian ageri zaigun koadrila hau, Banco Santanderra dagoen parean bildu zen mahatsa jateko. Urte asko pasatu diren arren, argi dago, garai hartan ere Txiki Eguna umore onean ospatzen zela Elgoibarren.

Gogora ditzagun zein diren erretratuan ageri zaizkigunak.

Atzeko aldean, ezkerretik eskumara: Maritxu Garate, Mari Tere Zabalo eta Josefina Peñalba.

Aurrean, ezkerretik eskumara: Angelita Lizundia, Maritxu Osoro (f), Kontxita Arrieta, Jesune Leiaristi, Luzia Arrieta, Arantxa Beristain, Maria Luisa Garate, Agurne (Algortakoa), Ana Mari Irureta, Maria Luisa Riaño, Pepi Arzak eta Felitxu Esnaola.

Behean, makurtuta: Dimas Gil (t).

**Maria Urizar**

**ILEAPAINDEGI MISTOA eta SOLARIUMA**

*jai Zat./ortiftwOais'a frzazue/*

Errosario, 9-1 ezk.13- 943 74 44 89

JULENE

PaLT801Gt

TA/AUAGanallt

**San Frantzisko, 43 Tel.: 943 74 42 53**

P.M. Urruzuno, 10 - Tel. 943 74 37 66
www.movellan.com

# sukaldeak - bainuak





Ergonomia, segurtasuna, ekologia, moldakortasuna, tradizioa eta berrikuntza dira proiektu berri bat planteatzean kontutan ditugun kontzeptuak.



Emaitza, giro bakar eta errepikaezina

San 8artoloosialkal





Rentinga ala finantziazioa?
Zure ametsetako autoa
MAPFRE
AUTOMOBILAK
San Frantzisko, 40
Tel.: 943 74 05 82 - 943 74 14 04
Faxa: 943 74 17 07
RMARIAL@mapfre.com


NATA
INPRIMATEGIA
ONPO PASAU,
SAN BARTOLOMEJAIXAK!
• Diselnu Grafikoa
• Iragarkiak
• Karpetak
• Bisita Txartelak
• Kartelak
• Ezkontza Gonbidapenak
• Jaunartze Oroigarriak
• Hileta Oroigarriak etab.
DEITU, ETA ESKA EZAZU AURREKONTUA.
Santa Ana, 44 • Telf. - Fax: 943 74 44 51 • e-mail:nava@euskalnet.net • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

# nola ALDATUdiren gauzak!



**1975.** urte ingurukoa da argazki hau eta Udal Liburutegiko artxibotik ateratakoa da. Elgoibarko tren estazioko aurrea ikus dezakegu bertan, eta San Roke Bailarako etxebizitza gutxi batzuk ere ageri zaizkigu, Karakate mendiaren magalean. Estazioko obrak egiten hasi zirenean ateratako argazkia da, baina apur bat ezkerrerago, lehenengo etxebizitza batzuk eginak zeuden orduko. Begira garai hartan ere nolako horma dotorea zegoen trenbidean! Ikusten dugunez, estazioko tren kableak gaur egungoen oso antzerakoak dira, beraz, alde horretatik ez dago diferentzia handirik.

2003ko argazki honetan zeharo aldatuta ageri zaigu ingurune hau. Gaur egun etxebizitza ugari eraiki dira San Roke auzoan, eta jende ugari bizi da bertan. Etxebizitza eder eta dotoreak dira, argazkian ikus daitekeen moduan. Bestalde, erretratuan ikusi ez arren, Elgoibarko herrian oso famatua den Pista Beltza dago bertan. Mota guztietako jendea biltzen da bertan, eta oso gustura ibiltzen dira: Jubilatuak pasiatzera eta gazteak korrika egitera joaten dira. Bestalde, San Roke auzoan denda eta tabema berriak ireki dituzte. Estazioari dagokionean, andena altuagoa dela ikusten da. Estazio berri eta modernoagoa da gaur egunekoa.



Juanito Gorostiza

Nafarroa enparantza
ELGOIBAR
Tel. 943 74 12 30

Gabi
JATETXEA

Ondo pasa
San Bartolome jaiak!



BAMA s L.
ERAIKUNTZAK

ETXEBIZITZA eta
PABIL101 INDUSTRIALEN
PROMOZIOA

San Inazio, 4 - Tel: 943 74 14 99
ELGOIBAR (Gipuzkoa)

# Clgothar bucla 200

*1 803. urfeczn zleyi Xisforio- geo raliAa oczfu es aiu zizXiolen riari sgynczcio Zarfolomd 97(u9uruza efa s yusfin ore gar¢- 9arzalz egin zulen lan eia 1 d03rzo olsallaren San enfrevaiu thuzien claiu yuzlicd. ,7/erXela arlan oinarrifuriX, 7Colofo Lizarralc/e lan osaluayo 6af arytiarcziu zuen 1984. urfeA cluz .73arfolorne faief(Jo prorarnazioan. .73er»e lana esXuariean yuyorcz (fezayun nolaXoci zen %916ar orain ofela 200 urfe.*

## Rokapena

Elgoibarko herria Gipuzkoan, mendiz inguraturik, Deba ibaiaren ertzeko lautadan kokatzen da. Iparraldean Mendaro du mugakide, ekialdean Azkoitia, hegoaldean Soraluze eta mendebaldean Eibar eta Markina. 1803an, ordea, iparraldean Deba eta Mutrikurekin egiten zuen muga, Mendaro ez baitzen oraindik herri izendatu.

Elgoibar herri bezala izendatu aurretik Markina de Yuso zeukan izena. 1346ko abenduaren 20an, Alfonso XI Erregeak Villa Mayor de Markina izeneko herri bat eraikitzeko baimena eman zuen. 100 urte inguru iraun zituen izen honek. 1472ko abenduaren 3an Zestoan ospatu zen Batzar Orokorrean onartu zen Elgoibar izena. Errege Katolikoek armarri bat eman zioten Elgoibarko herriari 1498an. Bi zatitan banatutako armarria: Batetik, zelai gorriaren gainean kokatutako zilarrezko Jauregi bat, eta bestetik, zelai urdinaren gainean zilarrezko 3 panel, ondoren Haundiki eta Leial izenak jarriz.

## 313t3tarderta

1803an herri honen izakera oso lasaia zela esaten zuten. 50 urte geroago biztanleria handituz joan zen, jaiotzak heriotzak baino gehiago baitziren. Txerto eta garai hartako biztanleriak zeukan janari osasuntsuari esker, elgoibartarren bizitza osasuntsuagoa izango da.

Era guztietako 108 morroi zeuden, eta 13 merkatari zeuden herrian. 9 gizon eskale eta 24 emakume eskale zeuden. 480 gizonezko inguruk fabriketan egiten zuten lan, eta emakume gehienak linoa iruten zuten ehunak egiteko. Probintziarteko milizietan ofizial bat zeukan herriak, 8 lagun zeuden Unibertsitatean ikasten, 3 legegizon, 2 eskribau, 2 udaltzaingo, sendagile bat, 2 kirurgilari eta albaitari bat.

## kentatbea

Elgoibarrek 504 biztanle zeuzkan Altzola eta Mendarokoekin batera. 280 baserri eta 454 etxez osatuta zegoen. Bi Udal zeuzkan, berria eta zaharra, biak espetxeekin, alondiga bat, harategi bat abere hiltokiarekin, ostatu bat, ospitale bat eta 7 taberna.

## Oskolak

3 eskola zeuden herrian, eta beste bi bailara bakoitzean, herriak jarritako maisuekin. 40 ume inguru bertaratzen ziren, eta neskatilen eskola banatuta zegoen bere maistrarekin. Hemen 20 neska inguruk ikasten zuten idazten, irakurtzen eta galtzetak egiten. Ez zegoen akademiarik, ez elkarte ekonomikorik, ezta liburutegirik ere.


OLASO
TABERNA – JATETXEA
Gosariak - Menuak
JAI ZORIONTSUAK
Olaso industrialdea, 15 Tel.: -943 743 185 - 636015707

ileapaindegia
solariuma
sm.
e
Errosario, 35 behea Tel: 943 74 26 92

# urte



Zzie&frreneA piaza, Z/arresi eia yuzii porialea efa Liddan ercth(IYaò

£uis. ore Ubitarte

## libuttria

Irina egiteko 24 errota zeuden, 54 errotarrirekin. 6 burdinola zeuden herrian. Orokorrean lanerako gogo handia zegoen, eta oso gutxi ziren lanari zeharka begiratzen ziotenak. Lanik egiten ez zutenak eskean ibiltzen ziren. Baina ez zegoen eskatzeko ohiturarik: San Frantziskoko Komentuan egunero ematen zieten behartsuei salda eta beste janariren bat eguerdiko ordu batean, eta Santa Klaran astean bi aldiz ogia.

## ethalt

Elgoibarko herriak San Bartolome zaindari nagusiari eskainitako parrokia bat zeukan, bikario bat eta 6 apaizekin. Baziren beste bi eliza: Mendaroko Santa Maria eta San Juan Bautistarena Altzolan. 8 apaiz eta 4 kapilau zeuden herrian. Eliza Nagusian bi erretore zeuden, eta bailara bakoitzean bat. Bestalde, 8 baseliza zituen: San Antolin, San Migel, Madala, San roke, San Salbador eta Mendaroko Trinitate baseliza.

Era berean, bi komentu zeuden: Batetik, San Frantziskoko komentua, Nikolas Insausti, Domingo de Karkizao eta beste herritar batzuek 1516ko azaroaren 3an sortutakoa. Bestalde, Santa Klarako mojen etxea, 1533an Pedro Gonzalez de Jauregi Jaunak eta Ma Ramos de Zarrazua bere emazteak sortutakoa. 1803an estalki beltzeko 14 moja zeuden bertan.

## Jaeltalarttla

Nekazaritza oso egoera onean zegoen. Lurra lantzeko simaurraren ostean karea botatzen zuten, onurarik egokiena zelako. Lana idi edo behiekin egiten zen, hala ere, baziren eskuz lan egiten zutenak.

Herri barruan zeuden 280 baserrietatik, 40 kenduta, gainontzekoetan maister edo errenteroek egiten zuten lan.

## Saltrooketa

Salerosketarako "postura" erabiltzen zen, Kastillako 441 oin karratuz osatutakoa. Beste batzuetan Estadua ere erabiltzen zen. 49 oin karraturekin. Herri honek bazeukan salerosketarako beste neurri berezi bat, "pertika" izenekoa, 16 oin eta heren bateko luzerarekin.


IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA
Gaindi ellay movtale4 teatu144 16 totte dete amitetd eta auto~ qffitlek teffiti64 T S uitte dete ametilt
fr

LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

### Jaietan gero eta iende nutxiano dahdela dirudi

# JAIETARAKO GOSEAK BENERA EGIN DUELA BEGITANTZEN AL ZAIZU?



**AINHOA USOBIAGA**

**15 urte, ikaslea**

Nere ustez ez. Gure kuadrilakuak behintzat, ahal dogun jai guztixetara juten gera. San Bartolomietan ere, jende asko ibiltzen da, eta nik ez dot igarri gutxitu ein danik.



**J.MANUEL VILLARCHAO**

**41 urte, pintorea**

Ez da gutxitu, jendea lehen bezala, edo gehiago etortzen dela esango nuke. Abuztu amaieran jendea nekatuta egoten den arren, San Bartolomeetako giroa oso ona da. Jendea oso animatuta egoten da.



**MIRIAM CAMARA**

**22 urte, hostalaria**

Bai, urtetik urtera gero eta jende gutxiago etortzen da San Bartolomietara. Guk taberna bat daukagu eta igarri dogu, behintzat. Azkenaldixan jendiak nahixo du oporrak kanpuan pasatzia.



**AURORA ROBRIGUEZ**

**49 urte, etxekoandrea**

Nire ustez gero eta jende gehiago etortzen da San Bartolomeetara. Urtero etortzen gara seme-alabek jaiak herrian pasatu nahi dituztelako, eta kaleak jendez gainezka egoten dira.



**IÑIGO LAMELAS**

**12 urte, ikaslea**

Lehengo urtian eguraldi txarra ein zaban eta oso jende gutxi ibili zan. Oin dala bi urte, askoz jende gehixo etorri zan. Ni urtero etortzen naiz jaixetarako, baina beste batzuk nahixo dabe oporrak luzatzia.



**JULEN TAVIRA**

**9 urte, ikaslea**

Nere ustez jende asko ibiltzen da, eta giro ona egoten da San Bartolomietan. Egunero urtetzen naiz kalcra, baina Txiki eguna eta umiena gustatzen jataz gehixen.

52E#71/4
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 tr 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

# Txosnetatik Gaztetxera jairik jai

Udalaren jai egitarauaz aparte, txosnen batzordcak hainbat ekintza antolatu ditu San Bartolome jaietarako. Gauzak horrela, Madala ingurua alaitzeko eta jai-giroa berotzeko ekitaldirik ez da faltako: txupinazoa, estilo guztietako kontzertuak, lagunarteko hazkariak... Horri honetan duzue txosnen batzordeak jaietarako prestatu duen egitaraua.





## TXOSNETAN

**ABUZTUAK 22, barixakua**
23:00 Su Ta Gar taldearen Kontzertua Gaztetxean (Sarrera: 4 euro)

**ABUZTUAK 23, zapatua**
**SALLOBENTE EGUNA**
18:00 Txupinazoa Txosnetan

**ABUZTUAK 24, domekia**
**"BARTOLOME"**
00:00 Filobiblion Sound Sistem eta Lolo Ferrari Experienze (SKA - P 'n"}=1 sesio askea) txosnetan

**ABUZTUAK 25, astelehena**
**"TXIKI"**
14:30 Euskal preso politiko eta iheslarien aldeko bazkaria txosnetan
19:00 MN-Ezten taldearekin dantzaldia

**ABUZTUAK 28, eguena**
Kokein eta TTakunpa taldeen kontzertua txosnetan

**ABUZTUAK 29, barixakua**
**"GAZTEEN EGUNA"**
14:30 Bazkari Herrikoia Gaztetxean
Ondorez Elektrotunarekin poteoa eta kalejira

**ABUZTUAK 30, zapatua**
**"BASERRITAR EGUNA"**
01:00 Preso eta iheslarien aldeko manifestazioa txosnetatik hasita

rr • N
DEKORAZIvr

*Zure etxea dekoratu nahi baduzu, gurean aukera zabalena daukazu.*

S 444 5 4414)1#414'e
JP1 ZORIONTSUA!

San Bartolome, 21 • **Tel:** 943 74 01 91

\VJXO

*ROCK-KAFEA*

San Frantzisko, 41 • Tel. 943 74 02 57

# Ongarri Argazki Taldeko bazkideen erakusketa abuztuaren 22tik irailaren 13ra

Ongarri Argazki Taldeak bazkideen lanez osatutako argazki erakusketa antolatu du aurtengo San Bartolome jaietarako. Abuztuaren 22tik irailaren 13ra arte izango da ikusgai Kultur Etxeko Erakusketa gclan.

Izen ezagunek parte hartzen dute erakusketa honetan: Jose Ronco "Eibar, tailer-hiria" lanaren eta liburuaren egile eibartarrak, naturako argazki berri liluragarriak zintzilikatuko ditu paretean. Eduardo Arrillaga elgoibartarrak eta bere emaztea den Esmeralda Zapparolik ere parte hartu nahi izan dute erakusketan. "Eduardok, "Sokamuturra" lanaren ostean Republika Domikanan egindako lan zabal eta gordinaren hiru bat erretratu ekarriko dizkigu. Argazkiok herrialde honetako bizimodua eta egoera islatzen dute. Aldiz, Esmeraldak, Venezia hiriko aurpegi ezezagunak erakusten dizkigu, gaur egun hiri hau ezagutzen dugun irudi topikotik ihes eginez, baina Venezia hiriko xarmantasuna mantenduz. Ramon Ortegak, Ongarri A.T-ko sortzailetariko batek berriz, "Chromosoma" izeneko lanaren zatitxoa aurkeztuko du. Bestalde, Sabin Osorok, "Etiopia" lana egin ondoren lineaz jositako paisaiak dakarzkigu. 50 urte baino gehiago argazkilaritza munduan daramatzan Antonio Irisarriren begirada ere presente egongo da erakusketan. Oraingoan mugimendua nagusi den argazki dinamikoak gerturatuko dizkigu". Zerrenda bukatzeko: Vicente Guinea, Angel Guenetxea, Gorka Muñoz, Xabier Ansola, Chary Gomez, Rafa Alkorta, Jokin Martinez, Roberto Martin, Vicente Caballero eta Carolina Sanchezen lanek ere parte hartuko dute erakusketan. Erakusketaren ordutegia: 19:00etatik 21:00etara.




**ZUBACOR, s. L**

Ibaitarte kalea. 11
Tel: 943 74 08 44
Fax: 943 74 26 66

Olth pasaa for 8aptotaffrfa

50 Posta kutxa
20870 ELGOIBAR
(Gipuzkoa)

Ekor

**Aholkularitza Juridikoa & Ekonomikoa**

- Abokatu zerbitzuak
- Kontabilitatea
- Nominak
- Aseguru Sozialak

Mendarozabal Industrialdea z/g
Tarteko solairua 2B
Tel. 943 75 52 24 • Faxa. 943 75 52 32
20850 MENDARO

Iosu
BIT XIDENDA

*Salmenta, konponketak eta moldaketak*

San Bartolome, 4 •
Tel. 943 74 40 48 - Elgoibar

Santa Ana, 22 -
Tel. 943 75 12 77 - Soraluze

2003-VIII-22

## ANDONI MUGERZA
**solkamutila**
**Adina: 28 urte**



# "Normalian berak nahi daban tokira juten da zezenan

Nola deitzen da zuen lana? **Neuk ere ez dakitx ziur, baina Azpeitxin adibidez, sokamutilak deitzen die gu moduan ibiltzen dianei.**
Zenbat urte San Bartolometako sokamuturrean? **15 urtekin hasi nintzan, osabak betidanik euki baititxu zezenak etxian. Gustau ein jatan eta oin arte.**
Zenbat lagun ibiltzen zarete? **Bost edo sei bat lagun.**
Entrenamendu berezirik egiten al dozue? **Ez dogu ezer berezirik eitxen. Ibilixaz ikasten da.**
Zer gosaltzen duzue 3 orduz zezenaren atzetik korrika ibiltzeko? **"Colacao" edo kafesne bat besterik ez. Hala ere, 3 ordu aguantatzen nahikua lan izaten da.**
Inoiz korritu al duzu San Ferminetako entzierrorik? **Ez, zezenan aurretik junda handixaua da peligrua. Atzetik junda beti ikusten da zezena eta hobeto kontrolatzen da.**
Zezena nahi duen tokira joaten da ala sokamutilak nahi duenera? **Inoiz juten da nahi dogun tokira, baina normalian nahi daban tokira juten da.**
Zer da zailena? **Danak gustora lagatzia. Gure asmua zezena danian ibili daixela izaten da, baina askotan zaila da danak kontentu lagatzia.**
Nori joko zenioke "adarra" gustura? **Parian tokatzen danari. Bromazalia naiz, baina neuk eitxekotan.**
Zer egingo zenuke neska batek "adarrak" jarriko balizkizu? **Berari ipini ahal bada. Odolkiak ordainetan.**
Zezenek noble fama dake. Eta zuk? Defini ezazu zure burua bi hitzetan? **Bai, nahiko noblia naizela uste dot eta baitxa pertsona trankila ere.**
Nkorduan al daukazu bereziki arriskutsua izan zen sokamuturrik? **Sokamuturrik txarrenak eurixa eitxen dabenak dia. Hasi eta bukatu bitxartian atertu ez zaban batez akordatzen naiz. Ezin izaten dogu tente ere ibili eta lurra labaina egoten danez, lurrian bueltaka ibiltzen gera.**
1-lan eta hemen ibiltzen zara zezenekin. Non dago afizio eta ofizio gehien? **Azpeitxin afizio handixa dao eta zezen aurrian ondo ibiltzen dan jendia ere bai. Euskal Herri osuan afizio handixa dao.**
Non ibiltzen zara gusturen? **Mutrikuko sokamuturrian, bertakua bainaiz.**
Zer da zezenaren aurrean sekula egin behar ez dena? **Begira geratu. Zezenan paretik alde ein bihar da, bestela akabo! Hori da sekretu bakarra, norberan burua salbu jartzia.**
Inoiz harrapatu al zaitu zezenak? **Bai, deskuidoren bat edo beste izan dot.**
Zezenek ez al zaituzte ezagutzen? **Ez, etxian bai, baina kalian ez.**
Zergatik ibiltzen gara zezen aurrean'? **Gustau eitxen jakulako, bestela ez da ulertzen. Zerbait diferentia da.**
Juergarako leku bat? **Konpainia onian leku danak dia edarrak.**
Juergarako edari bat? **Gin-kas-a onena.**
Jaietan gehiago ligatzen da, ala topiko hat da? **Danian ere gutxi. Neskek ihes egiten digute guri.**
Soka lotu beharko diezu orduan zezeneri moduan? **Hori izango da soluziva, bai.**
Zer gehituko eta kenduko zenieke jaiei" **Kendu ezer ere ez, gehitxu ahal bada. Goizeko sokamuturrak errespetau eingo nitxuzke, baina Plaza Txikiko enbolauak gehitxu. Azken aldixan ez da jenderik juten eta penagarrixa da.**
Zeri diozu beldurra? **Gauza askori. Zezenan adarrari esaterako.**
Bitxikeriarik? **Zezena errekara jauzi zanekua sinistezina izan zan. Hil zala pentsau gendun, baina lasai asko zauan erreka ertzian. Beriak eta bi pasa genitxun handik ateratzeko, biderik ez zauan-eta.**

# Aldaketak hiruretako etxapligu tradizionalean



Duela 60 urte gerra ostean hasitako tradizioari jarraituz, elgoibartar askok eguerdiko 15:00etan hasten dituzte jaiak Giza Eskubideen Enparantzan botatzen dituzten etxapliguekin. Aurten ere ez du hutsik egingo aspalditik datorren ohitura honek, baina zenbait aldaketa egitera behartu dituzte. Hona hemen hiruretako etxapliguak botatzen aritzen direnek eman dizkiguten azalpenak: "betidanik elgoibartar askok bezperako arratsaldeko hiruretan ematen diegu hasiera jaiei etxapliguen burrundara eta kanpaien hots ederrarekin. Azpimarratzekoa da, urteak pasa ahala, gero eta jende gehiago biltzen garela frontoiaren atzeko aldean.

## Aurten 3 etxapligu bakarrik bota ahal izango dituzte hiruretako etxapligu tradizionalean

Zoritxarrez aurten ezin izango dugu urtero botatzen genituen ehundaka etxapligo bota. Zergatik? Udaletik adierazi digutenez, hautatu berria den Udalak bertan behera utzi duelako orain arte Kulturako zinegotzi ohiaren aldetik jaso izan dugun laguntza (mila esker, Ana santolaya!), batez ere guretzat horren garrantzitsua zen erantzukizun zibilaren asegurua. Bestalde, Udalak dioenez, derrigortuta ei gaude Eusko jaurlaritzako "Jaialdi eta ikuskizunetako" departamenduaren baimena lortzera horrenbeste etxapligo botatzeko. Dena den, aurten ere gure betiko ohiturarekin jarraituko dugu, eta beti bezala hasiko ditugu jaiak: arratsaldeko hiruretan, frontoi atzekaldean, kanpaien iskanbilarekin, dultzainen doinu alaiarekin eta, nola ez, etxapliguekin. Nahiz eta aurten etxapligo gutxi bota, hiru bakarrik, hain zuzen ere. Zerbait gehiago jakin nahi izanez gero, www.geo.ya.com/23alastres web orriladean aurki dezakezue.

404 OIHALAK MERTZERIA
NEURRIRA EGINDAKO JANTZIAK
749a falr
San Bartolome, 19 • Tel: 943 74 35 95

azkue ARGAZKIAK
Son Bartalome, 26 - 20810 ELGOIBAR - ((,) 943 74 08 48

Proiektu integralak egurrean

Igor isasmendi
Ander Alkorta





ATEAK
LEIHOAK
EGURREZKO SABAIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
EDOZEIN MOTATAKO ZORUAK
TARIMA ARTISTIKOAK
BARANDAK
BIGA FALTSUAK etab...

JG(Iild Idld, 28 behea
**Tel. 656 78 78 59**
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

# HIZKUNTZ

# SOWMAK

**IRAILETIK HASITA**
**2003-2004 KURTSOKO**
**I KASTAR OAK**

- Maila guztiak
- )Titulu ofizialak
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak
- Talde murriztuak
- Ikastaroak atzerrian
- Multimedia gela

**ENPRESA**
**ITZULPEN ETA**
**INTERPRETAZIO ZERBITZUAK**

- Esperientzia zabala duen lan taldea
  - •Teknikoa (makina-erreminta)
  - •Komertziala
  - •Nazioarteko proiektuak
- Goi-teknologiaren erabilera
- Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa
- Prezio lehiakorrak

Ondo pasa jaiak!

**INDUSTRY**
**LANGUAGE**
**SERVICES**

IMH Eraikuntza
San Roke Auzoa, 1-P.K. 37
E-maila: ils@ils.es
Te1.943 744 040 Faxa: 943 741 654

NERRAMENTA




MURUAMENDIARAZ gozotegia • San Bartolome, 34-35 • Tel. 943 740 345



# IPINIE1JIMAX

141.1

KALITATEA ZIURTA-TZEKO
1O@sistema
ISO 9001/EN 29001
Erreg Zk.: 10677-01

## ENPRESA

